



Sari banaketarekin, agur koruei

TOLOSA ▶ Atzo goizean musika sakratu atalean lau abesbatzek kantatu zuten Santa Klaran; arratsaldean berriro Leidorren

ITXIERA ▶ 11:00etatik aurrera amaierako ekitaldia eta sari banaketa izango dira gaur; 19:00etan San Frantziskon kontzertua ▶ 4-5



38. Abesbatza Lehiaketa. El Leon de Oro abesbatza Polifonia eta Folklore atalean lehiatu zuen atzo, Leidorren. ESTI EZEIZA

ANOETA ▶

Gaztetekeo
lapurretan
dirua ostu
dute

Ateak bortxatuz ireki
zituzten herenegun ▶ 5

JOSE LUIS CASTRO ▶ ERBESTERATUA

«Gerrak aitaren adorean
eragin handia izan zuen
bizitza osoan»

Donibane Lohitzunera alde egin behar
izan zuten Gerra Zibilaren garaian ▶ 7

Donostiako Kursalean "Bodas Gipuzkoa Expo-Feria" handienean gure lanaren erakustaldia egitera gonbidatu gaituzte. Hori dela eta **azarak 11 larunbata** eta **13 astelehena** ileapaindegia **ITXITA** egongo da. Barkatu eragozpenak.

ESTILISTAK
Donekin?
☎ 943 67 22 44
Santa María plaza, 1 • TOLOSA

Laguntzaile eta ofizialak behar ditugu. Aukera polita duzu talde jator eta ileapaindegi aurrerakoi batean lan egiteko.
AITOR: 635 736 375 / 943 67 22 44

GUTUN@K ▶

Guk hustu dugu!

Gaurko eguna tristea da gure herrian; gertaeren abiaduraren ondorioz kostatzen da lasai exeri eta atzera begira hausnartzea. Gertaerak, sentipenak eta ideiak pilatuz joan zaizkigu, kanporaturiko objektu guztiak bezala eta asanbladen dinamika itzela izan da. Aupa gu!! Gaztetxea hustu dugu, guk! Ez udalak; ez polizia; eta ez beste inork. Egiten dugunean sinesten dugulako eta gure ametsak ditugulako; errealtate egiteko. Ez dugu egungo gizartea ulertzen ezta berak gu ere. Herri kideek arrituta begiratzeko bezala; baina beraien urrezko promesak guretzat urrezko kaiola zuzenak dira gure ideiak eta ametsak mugatzen dituzten barrote zuzenak. Ez dugu diruz eraikitako ater-

perik nahi auzolanean eraikitako ametsak nahiago ditugu eta egingo ditugu. Oker egin dugunaren sentipenarekin goaz; geure aterpea izan den etxea azkeneraino ez defenditu izanagatik baina zuzen eraiki dugun ilusio eta ametsen mundua soinean daramagulako eta oso kutsakorra delako. Izan dira, bagera eta izango dira ametsen mundua eraikitzen jardungo duen jende iraultzailea. Beren egunerokotasunean iraultza txikiak egiten biziko direnak. Orain kale gorrira goaz, lepoa tente eta zuzen baina bihar; bihar gure ametsak asetzeko lanabesak hartu eta zorrotzuki ditugu orain arteko borrorak jarraituz, kaiola erraldoi honen barruan gune askea lortuko dugu, inoren loturarik gabea eta guk eginga. Herri txiki honen historian hurrengo pausua emango dugu eta lortuko dugu, Herri bat, Gaztetxe bat!

IGOR ALBERDI ▶ VILLABONAKO
GAZTETXEAREN IZENEAN

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

Bilbo ez da pakistan (baina ia-ia)



Bart gauean lehen putetxe izandako lokal batean izan gara pisukideak eta ni, ostegunetan film labur arraroak ematen ditzutelako eta zerbeza merkea daukatelako. Etxerakoan, etxe azpiko kebabean geratu ginen pixka batean, azken zerbeza hartu eta kebabak jaten. Putetxe izandakoan zerbeza merke zegoelako -edo zerbitzariari konbertsazioa ematen hasi zen pisukidea: ea nongoa zen, kebab haragia egiatan zer den, gure etxera festa- etorri nahi ote zuen, etabar.

Pakistangoa zela erantzun zizun, bi urtez Bilbon lanean aritua, eta orain bi hilabete etorri zela Bartzelonara, lanera. Ea Bartzelona ala Bilbo, bizitzeko gehien gustatzen zaion lekua zein den galdetuta eman zizun erantzunak atentzioa eman zidan, Bartzelona baino Bilbo nahiago zuela esan baitzizun. Halere, ea hori hala zergatik zen galdetzean erantzundakoak harritu nin-

duen gehien: «Bilbotarrak Pakistango nire herriko jendea bezalakoxeak dira, gutxi gorabehera».

Kuriosoa da. Bartzelona hiri handia da eta, ustez, baita halako mosaiko kultural bat ere. Eta egia da, kolore eta itxura desberdin askotako jendea topa daiteke bertan. Bilbon ere bai, baina gutxiago; txikiagoa da. Eta horra, nola arabiarrez idatzitako karteletz jositako Ravalean baino gusturago sentitzen den Pakistandik etorritako tipoa Santutxun! Ez dakit, seguru asko herri txiki batetik datorren bati (nahiz eta urrutitik etorri), agian, gertukoago egingo zaio Bilbo bezalako herri handi bateko jendea Bartzelonako hiritarra baino. Nahiz eta hiri handian bere kultura eta jatorri bereko etorkin gehiago egon.

Badakit pakistandar bati Bilbo Bartzelona baino gehiago gustatzea ez dela anekdota estupidu bat besterik. Baina munduko beste puntatik etorritako norbaitek bilbotarrak pakistandarrak bezalakoak direla esateak zerbait irakats diezaguke. Are gehiago, lehengoan esan zidatena (Tolosan ez dakit ze pintada faktu azaldu direla) egia bada.

LEHEN ETA ORAIN ▶

Arkauteko
paper fabrika
zaharra,
Alegian

Erredakzioa ▶ Denbora guztiarentzat igarotzen dela gauza jakina da. Pertsonak, paisaiak, ohiturak... guztia aldatu egiten da. Herriak ere ez dira salbuespen eta eraikinak aldatu egiten dira urteen poderioz. Halaxe gertatu zitzaion Alegiko Arkauteko paper fabrikari, urteetan herriaren izan eta gero, hura bota eta etxebizitzak eraiki zituzten bertan. Alegiak jasan duen aldaketa hau eta beste askok biltzen ditu, hain zuzen ere, Azaro Kulturaren baitan, aste honetan inauguratu duten *Alegia, lehen eta orain* argazki erakusketak. Herriko argazkilaritza taldeak osatu du eta Kultur Etxean izango da ikusgai. ¹ALEGIA

LEHEN ETA ORAIN' ARGAZKI ERAKUSKETA

iragarki laburrak ▶

LANA

Osakidetzan. Laborategirako teknikoak, mantentze langileak, zaintzaileak, administrari laguntzaileak behar dira.

943 31 37 82.

Gidariak. Lanpostu finkoak libre. Lanaldi jarraitua.

943 31 37 82.



NAROA EPELDE ▶ 'EMAKUMEA PILOTARI' PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

«Gure helburua emakumeak pilota mundura gerturatzea da»

Naiara Garzia ▶ *Emakumea pilotari* proiektua 2004. urtean sortu zen, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren ekimenez eta Foru Aldundia eta hainbat udalerriren laguntzarekin. Akordioa herri batzuekin soilik sinatu zuten: Azpeitia, Zestoia, Arrasate, Ataun, Tolosa, Donostia, Hondarribia, Irun eta Hernani. Proiektuaren inguruan koordinatzailearekin hitz egin du HITZAK, Naroa Epeldearekin (Azkoitia, 1981).

Ze helburrekin sortu zen?
Batik bat emakumeak pilota mundura gerturatzea. Proiektuak sail ezberdinak ditu, baina helburua azkenean bera da, herri bakoitzean emakumezkoen pilota eskola sortzea.

Herri batetik bestera ezberdintasunik nabaritzen duzue?
Are eta txikiagoa herria, orduan eta gehiago ibiltzen dira gazteak pilotan.

Ze sail ditu proiektuak?
Funtsean, eskola kirola, alde batetik eta partaidetzako kirola, bestetik. Honen barruan erakustaldi herrikoiak eta 25-30 urtetik gorako emakumeentzako pala saioak sartzen dira.

Arlo bakoitzaren barruan, zeintzu dira helburuak?
Eskola kirolari dagokionez gure helburua hau da, eskolaz kanpoko jarduera bezala pilota eskolaz edukitzea. Pala saioetan orain ari gara lanean.

Zer moduz hartu dute neurri hau Tolosan?

Hirukiden, esaterako, jada baiezkoa eman digute.

Orain arte eskolaz kanpokoe-tan pilotarik ez al zegoen?
Leku batzuetan bai, baina hala ere ez da nahikoa, eta emaku-



HITZA

mei dagokionez, are gutxiago. Orokorrean dauden pilota eskoletan mutilak dira nagusi eta eskuz aritzen dira.

Modalitate hau ez al da emakumeentzat egokia?

Gure ustez eskuko modalitatea neskenentzat ez da hain egokia, indar gehiago behar baita. Pala proposagoa da.

Orain dela 6 urte 81 emakume zeuden federatuta. Orain, berriz, 40 inguru. Zer dela-eta jaitsiera hori?

Alde batetik, gaur egun aisian hainbeste gauza daude egiteko... Eta bestetik futbola gero eta indar gehiago hartzen ari da emakumeen artean. Eskolan ere argi ikusten da. Lehen futbol talde bat ateratzen zen gehienera ere, eta orain, berriz, talde asko daude.

Jasotzen dugun hezkuntzak zerikusirik ba al du?

Hezkuntza ezinbestekoa da eta horregatik guk sustapen jarduera delakoak egiten ditugu. Honen barruan eskola orduko heziketa fisikoko klaseetan neskek pilota eman dezaten saiatzen ari gara.

Jendearen aldetik izan duzuen harrera ona izan al da?

Tolosan, bi talderekin ari gara lanean. 25-30etik gorako pala ikastaroekin, berriz, orain hasi gara. Ikastaroa dohainik izanen da, astean behin eta kalean kartelak jarri ditugu jendea animatzeko. Euskal Herrian bizi arren, azkenean, emakumeentzako pilota ezezaguna da; aerobica edo spinning-a eskurago dituzte, modan baitaude. Nire ustez, neska asko ez dira pilotan ibiltzen, ez dutelako inoiz probatu.

EZEZAGUNA

«Emakumeentzako pilota ezezaguna da; aerobica edo spinning-a eskurago dituzte, modan baitaude»

PALA

«Gure ustez eskuko modalitatea neskenentzat ez da hain egokia, indar gehiago behar baita. Pala proposagoa da»

GUTUN@K ▶

Renfek bere zerbitzu bat murriztu du

Autoa uzteko eta garraio publikoa erabiltzeko kanpaina bete-betean dagoenean Renfek zerbitzu bat murriztu du.

Brinkola-Donostia arteko tren zuzena orain arte Tolosako apeaderoan beti gertzen bazen ere, ez da dagoneko gehiago bertan geldituko.

Ez dakit zeintzuk diren erabaki horren arrazoiak, leihailan eta pika-pikei galdetzeko lana hartu badut ere, ezin izan baitit inork azalpenik eman. Itxura denez beste bidaiariek ere ezin izan dute garaiaz erabaki horeen berri izan, asko baitira egunero hantxe zain izaten direnak eta trenak aurrera nola egingen duen harrituta ikusten dutenak.

Erabaki honen zergatia ez da erabilera eskasa izango, zerbitzu bakoitzean batez beste 25en bat bidaiari gogutzen baikin egunero trenera.

Kutsadura, istripuak, autoilarak, zarata... egunetik egunera gero eta beharrezkoagoa da garraio publikoaren erabilera baina Renfek kontrako norabidea aukeratu du eta geltoki hau desagerarazi.

Azalpenak aldarrikatu nahi dut, eta areago, geltoki hori tren horretzat berriro derrigorrezkoa izan bedi.

Erabiliko ez dugun Abiadura Handiko Trenarentzat (AHT) milaka milioi eta egunero erabiltzen duguna murriztu. Erabaki hau jasanezina da.

JUAN MARI BELDARRAIN
▶ TOLOSA

hitza *lagunen*
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu **902 82 02 01** telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUMINAZIOA
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

38. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Gaur jai giroan emango diete amaiera parte-hartzaileek 38. Abesbatza Lehiaketari

11:00etatik aurrera Leidor antzokian amaierako saioa eta sari banaketa izango dira; 19:00etan berriz, University of Louisville Cardinal Singers-ek abestuko du



Anima altxo taide Errusiarra Santa Klara elizan atzo. E. GAZTEA



Ankappela taide turkiararen emanaldia Santa Klara elizan atzo. E. GAZTEA

N. URBIZU - E. EZEIZA

Bost egunetako lan handiaren ondoren, gaur orotara zuzenduko dira berriro 38. edizio honetan parte hartu duten abesbatzak. Dagoeneko tolosarrak herrialde guztietako jendek kaleetan zehar ikusten ohi direnean, berriro izultzeko garaia iritsi zate bistaririk. Atzo, goizean goiz hasi ziren emanaldiak. Baina oraingoan eskenatortik aldatu zuten: abangoardiako Leidor alde batera utzi. Klau-suraiko monijen konbentuko parrokiak aukeratu zuten musika sakratua interpretatzeko. Iatorri hori baitu bere lekua. Atzokoan Santa Klara elizan denbora askoan entzungo ez diren kalitateko abesbatzak izan ziren. Musika Sakratua Sailean, bost ahots taldek hartu zuten parte: Ensemble Vocal Petalosa —Sutzu—, Ankappela —Turkia—, Anima —Eru-sua—, Voces8 —Erresuma Ba-tua— eta Cardinal Singers —Amerikar Estatu Batuak—. Hain zuzen ere, hauek berak, bi egun lehenago musika profano

AITOR IMAZ ▶ GIPIZUONGO ABESBATZEN FEDERAZIOKO LEHENDAKARIA

«Etxean abestea azterketa bat egitea bezala da»

Aitor Imaz tolosarrak aste honetan lehenbiziko aldiz hartu du parte Tolosako Abesbatza Lehiaketan. Hau, Oñaitiko Gantbara abesbatzaren aurkeztu da tropelotan. Abesbatza kide izateaz gain, Gipuzkoako Abesbatza Federazioako Lehendakaria da, eta besteak beste, Tolosako Hodeletzekin ere kantatzen du. **Gustura gero al zarete egindako lanarekin?** Printzipioz oso gustura gertatu gara. Jendearen erantzuna ona izan da eta kontentu gertatu dira. Hasieran, tentazioarekin edo, folkloriko saiorekin ez ginen sentasazio onarekin gertatu, baina jendeak esan zigun ongi ginen gurea. Eta polifonikoa ere gertatu da. **Hasieran esan zen bezala, maila altua izan al da?** Oso taldea onak daude. Ekarki



AITOR IMAZ

dituzten taldeak maila oso altukoak dira, bodeude lau edo bost talde, izugarri onak direnak. **Egia al da Europa ekialdeko taldeak izan direla onak?** Kasu honetan ez du zerikusirik. Auzerengoa amerikarrak dira fabortxoak. Indonesiakoak ere oso onak omen dira, eta Filipinetakoak ere hor daude. Beraz, kasu honetan bakartzira punita batekoak da. **Etxean abestea horren zaila al da?** Erresponstabilitate handiagoga duzu, eta azkenean hau presio bilakatzeko da. Azterketa bat egitea bezala da, publiko zinguna da, eta denak zu aztertzeko ari dira. Niretzat amets bat bezala zen Leidorren abestea, eta gero gurea, ikusi nuzuean zer giro zegoen, ba

iragarki laburrak ▶

SALGAN
Autoa: BMW M3a, Urdina, 286 zald. 1995eko, 153.000 km, 18ko kartak eta sabala. 14.000 euro. 943 65 41 43.

LANA
Ikasleentzako. Honekin oher lespañolegiak laguntza eta ofizialak behar ditu. 943 67 22 44 edo 635 736 375



Son-Francoise, 23 ▶ 20010 TOLOSAN (Gipuzkoa) T 943 65 00 507

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabidea. Leidor anteo berria: Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dituzta inbertitu du honetan. Helburuetako bat akustika hobetzea zetzan. Hori lortu denik ez dute denek uste, ordea. Zer iruditzen zaiuzu? Hobetu, gina da? Zein alde onak dituz?

bat izaten dute, eta ondoren hauetatik batzuk aukeratzen dira. Hauxe gain, beste batzuk gonbidatuak izaten dira. Beste lehiaketaren batean ikusi dituztelako edo... Txapelketa hauek kontantza egiteko ere balio dute. Lehiaketa hauek daukaten beste gauzetako bat da hori. **Tolosako publikoaren eta kanpokoaren artean ezberdintasunik ba al dago?** Epaimahaiak kideak harrigarri egiten zaien gauzetako bat da, publikoan jende asko egoten dela. Izan ere, Sari Nagusia osatzen duten beste lau lehiaketaletan ez da horrenbeste jende biltzen. Hemen berriz, ia saio guztietan, Leidor antzokia beteak dago, eta hori harrizkoak da. Horrek adierazten du herriarrak inplikatu egiten direla. Besteak beste, oso tristea izaten da, zeren eta nik denbora dezente iragortzen duzu saioa prestatzen, eta gero ikustez ez dela ia inon joaten entzuten, ba pena bat da. **Finkatuta dagoen lehiaketa bat da.** Bai, antzokietatik auzo ondo dago. Normalean kanpotik datozten abesbatzek prestaketa moduan lehiaketa aurretik kontzertu batzuk ematen dituzte Gipuzkoan. Eta hona etortzen diren guztiak oso gustura biltzen dira. Publiko alde-tik goxotasun handia nabaritzen dute, eta gainera CIT-YEEK lan bikaina egiten du. ◀

atalean aritu ziren abesten. Elizako bankuak ere Leidor anteo bezala bete egin ziren egitarau sakratua entzuteko. Arratsaldeko saioan, goizeko seriotasunak alde batera utzita, folklorea eta polifonia landu zituzten abesbatzak. Folklorean Estavia Madrigal Singers —Indonesia—, Studio Vocale Karlruhe —Alemania— eta El Leon de Oro —Asturias, Espainia—, Polifonia, aldiz, Vocalis —Noruega— eta Cardinal Singers.

19.00ean polifoniarrekin ireki zuten lehiaketa, baina El Leon de Oro abesbatza ez zen polifoniar lehiatza. Guztietan ere, Leidor anteoan jendek erantzun zuten, eta entzule kopurua aipagarriak izan ziren. Beste behin ere, anteoia ia orotara bete baitzen.

Egunari amaiera emateko, Beotbar pilotalekuan ohiko dantaldia izan zen. Bertan, eta Tolosako eta Leiztaldeko hitza erredakzioa iturrik zegoela, abesbatza irabazlearen izena adituzera eman zuten epaimahaiadek.

ANOETA ▶ GAZTERIA



Anoetako Gaztebeho ate guztiak borkatu zituzten lapurretan. «HITZA»

IRITZIA ▶ MIGUEL ZEBERIO (ABESBATZA ETA ORKESTRA ZUZENDARIA)

Bai ondo!



Gaurkoan eskatu beharrean naiz irakurle finari barkatzea, ez bainaz gai hain denbora gutxian eta leku burrun, lehiaketaren auzen abesbatzako hamar ordu luzean entzun eta ikusitakoaren laburpen laburtua egiteko. Lehiaketaren amaierazuzten nabarmentzen da, koro musikan tradizio serioa duten eta lantzen jarraitzen duten herriek daramaten bidea eta honen emaitzak. Aslotan elkarrekin barte-katzen diren kontzertuak dirakalduz: koroan kantatzen eskoletan eta college-etan edo musikaren irakasleentzako antolatutakoan ohiko lekuak ematen dituen herriak. Abesbatza bizitza sozial eta erlijiosoan elementu garrantzitsuak izaten dira. Gaurkoan sarten eguna, epailetzaren alegia: hau zuzena bada eta norberak dagokion lekua onartuz gero, gaitzertu.

Axaso ostiralean Leidorren entzundako saioan, mailari eusteko lanak izan ziren baina hain ziren berriro Voces8-ko erresuma batzarrak. Baka eta autonomia osoa edo taldean elkarri jostia, biltzeko egindako musikaren esparrua merpean dute, balaibide teknikoak hain dituzte honen zerbitzura. Galduta bat datorrik: denbat txapelketa estal ote dituzte britainar hauek bu-rak? AEB-etako Cardinal Singers-er buruz asko entzun gurean lehiaketa hauek aurretik, eta erango dugu esan haseratsenak zapuztu zaitzigu. Gai mailako teulakaren jabe dira estatu batzarrak, eta horren mesedetan programak ere hala modukoak. Kent Hattberg zuzendariak aholkues-go artzea mesederako luke ordez taldekiek. Entzun besterik ez dago zer nolako aldean egiten duten espiritual eta doro herrikiolekoan sartarazkoan. Auzerengo piki mailako abesbatzen artean jagozateko hauek ere. Filipinetako kantarrak, espere genuena iritu dira, Jonathan Velasco zuzendaria ez da arrotza Europar kontinentean eta horrenbeste-ko bidala alferrik ez du gien. Batavian Indone-siarak ere Asiatik, beraien herrialdeko folklo-rearen kolorea, dituzten balibide eta gaitasun aberatsak, jarduna janzteko erabili dituzte. Bi hitz Norvegiako Vocallako emakumeak pa-hetsu eta patxaxtasuak suertatu zaizkit. Bai ondo!

Lapurreta Gaztetxean

Kaxan zegoen dirua eraman eta ate guztiak borkatuz ireki zituzten

NEREA URBIZU
Ostiraletik larunbaterako gusean Anoetako Gaztetxean lapurreta egin zuten. Antza, bertan zegoen dirua lapurtu zuten. Lau musika lokaletako atsek ere borkatu izan arren, ez zuten handik ezer ere ez hartu. Lapurreta egin zuten-an, ez zen Gaztebeho inon. Lapurretan, lehenago astean barran irabazitako dirua eraman zuten, «400 bat euro izango ziren, baina» hori bai no, «ate guztietako sarrallak aldatu behariko ditugu, denak agurtu dituztelako». Gaur hartan 01:00ak arte musika talde-etako bat entseगतzen aritu zen, eta atzo gusean gaste ha-ztik Gaztebeho joan zirenean, ikusi zituzten kalhetutako atek-ak, eta guztiak irekia. Anoetako Gazte Asanblad-iak horren buruan Gaztebe-koan bilera berezi baterako deialdia egitea erabaki zuten. Bertan, egoten ikusi eta hartu beharriko erabakiak gaitzertu zaitzuten. Gaur 12.00etan prentsa-urreko modukoan egingo dute Anoetako Gazte Asanblad-ko kideek, atzoko bilerean on-doren, sez dugu argi zer izan den: materialik ez dute eraman, 6 edo 7 ate borkatu di-tuzte, ez dagozu lapurreta izan den, edo miaketa bat. Beraz, «azalantzak ditugu honen auz-terean».

► hilberriak ► urteurrenak ► eskertzak
Gipuzkoan 50.000 etxetara
HITZA guztietan prezio beroragok
ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.no

KULTURA ▶

Euskarazko beste film bat

Oreka Tx taldearen 'Nomadak Tx' dokumentala Leidor aretoan jarriko dute ostiral honetan ikusgai; Donostiako Zinemaldian estreinatuko zuten



Nomadak Tx filmaren fotograma bat; musikariak mundu osoko kultura ezberdinak bisitatu dituzte euren bidaietan. HITZA

ANDER USABIAGA
(Irtzuloko Hitza)

Eskarazko beste film batetik Donostiako Zinemalditik areto komertzialetara salto egingo du: *Nomadak Tx*-ek. Oreka Tx txalaparta taldeak Laponian, Indian, Mongolian eta Saharan egindako bidaiak kontatzen duen dokumentala ikusi ahal izango da Tolosako Leidor aretoan, ostiral honetan, 19:00etan. Babarrun Astearren egitarauaren baitan.

Igor Otxoa Oreka Tx taldeko kidea baikor da pelikulak zinema aretoetan egingo duen bidaiari begira. Batez ere, Zinemaldian nolako harrera izan zuten ikusita. «Kursaaleko estreinaldia ezin dugu erreferentziatzat hartu, ikusleetako asko ezagunak zirelako, eta haiek oso ondo hartu zutelako filma. Ez zen termometro egokia izan. Hala ere, egun horretan bertan, goizean, prentsarentzako saioan, jendeak txalo zaparrada eskaini zion pelikulari, eta hori oso ohikoa ez dela esan zigu-

ten kazetariak. Gainerako saioetan ere ez zen oso gertuko izan, eta haiek ere primeran hartu zuten». Otxoa oso pozik dago, bestalde, ikusleek zorionak ez ezik, eskerrak ere eman dizkietelako, pelikula ikusi ondoren: «Jendea hunkituta atera da saioetatik, eta guk horixe nahi genuen; momentu on bat pasarazteaz gain, ikusleengan sentimendu batzuk eragitea».

Filma Euskal Herrian ikusgai jartzeaz gain, laster, urriaren 27an, Katalunian eta Espainian ere jarriko dute. Alemanian eta Suitzan ere pelikula eskaintzeko asmoa agertu dutela adierazi digu Otxoak. «Europako 3.000 zineklub edo antzeko elkarte biltzen dituen erakundeak CICAIE saria eman zigan Zinemaldian, eta horrek filma kanpora ateratzen lagunduko duela uste dugu», esan du txalapartariak.

Pelikulak Oreka Tx taldeko kideek egindako bidaia du ardatz. Bidaiak horretan, Igor Otxoak eta Harkaitz Martinezek Euskal Herriko oso urrun

daramatzate txalaparta doinuak. Baina horrez gainera, Saharako amonak, Mongoliako musikariak, Indiako taxi gidariak... ezagutzeko aukera ederra ere bada *Nomadak Tx* pelikula.

'Kutsidazu'-k harrera ona

Irailaren 28an Donostiako Zinemaldiaren barruan estreinatuko zutenetik, 30.000 lagun inguru ikusi dute *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* euskarazko filma. Zinema jaialdian estreinaldi ofiziala izan eta hurrengo egunean, Gipuzkoako hainbat zinema aretotan eta Gasteizen estreinatuko zuten Mireia Gabiondok eta Fernando Bernuesek zuzendutako filma eta aste-bete geroago, urriaren 6an, Bizkaian eta Nafarroan.

Herriak eta hiriburuak begiratuta, Donostia izan da asteotan ikusle gehien bildu dituen lekua, 5.375 ikusle hurbildu baitira euskarazko filma ikustera Gipuzkoako hiriburuan. Bilbok 2.000 batu ditu, Gasteizek 1.550 eta Iruñeak 650.

AZOKA ▶

Kanpotarren bisita jaso zuten atzo saltzaileek

Barazki eta perretxiko eskaintza zabala izan zen; prezioak mantendu egin dira

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna nahiko lasaia suertatu zen lehenengo orduetan, baina goiza aurrera zihola, berotu egin zen era bat. Kanpotar asko egin zuten buelta postuetan, eta ohiko erosleekin batu ziren goizaren erdialdera.

Eskaintzaren aldetik aipatu beharra dago ikusitako barazki zerrenda. Aza, azalore, eta bruselaza asko izan zen salgai atzo. Baita porruk, azenariok, tipulak, babarrunak, bai Tolosakoak eta txuriak ere, pintadak eta eskarola asko.

Ekologiko mahaietan ere oso zerrenda zabala ikusi genuen eta aipatu beharra dago ikusitako erosle kopurua.

Perretxiko zerrenda joan den asteokoa izan zen, kalitatean eta kopuruan. Prezioak mantendu egin ziren.

AZOKA ▶

Prezioak merk. gares.

Berdura plaza	merk.	gares.
Ziklamena	5,50	-
Azalea	5,00	8,00
Gerbera	12,00	-
Salbia	1,00	1,2
Xarbot	4,00	6,00
Erromero	4,00	6,00
Pensamientoa	1,00	-
Klabilina	3,20	-
Dhalia	3,20	-

Bertako produktak

Onttoa	10,00	22,00
Ardigazta	14,00	18,00
Behigazta	7,00	7,50
Intxaurra	3,00	4,00
Tolosako Babarruna	8,00	12,00
Ogi Biologikoa (900 grs.)	2,53	-
Arraultzak	1,30	2,10
Kuletroa	3,50	-
Ziza horia	20,00	-

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Baraburi	1,60	6,00
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-
Mermelada	3,00	3,60
Azukrea	3,35	-
Aza	2,50	3,00
Ahuntz Gazta	3,00	-
Kogoltoa	1,00	-



ASTEASU: Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 34.000.000 pzta.
TOLOSA: 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pzta.
TOLOSA: Zumalakarregi. 100 m2. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berritua. Bista ikaragarriak. Sukaldea jarrita. 85.000.000 pzta.
VILLABONA: Arroa. Pisu altua. Berritua. Ganbara badu. 49.000.000 pzta.
VILLABONA: Larrea. Pisu altua igogailuarekin. 37.500.000 pzta.
VILLABONA: Eraikuntza berrikoa. 51.000.000 pzta.
VILLABONA: Berogailua eta igogailua ditu. 44.000.000 pzta.
VILLABONA: 3 logela. Erdi eraberritua. 41.200.000 pzta.
VILLABONA: 2 logela. Hormigoiez eraikia. Terraza. 36.000.000 pzta.
VILLABONA: Apartamentu xarmanta eraberritua. 36.000.000 pzta.
VILLABONA: Etxebizita eraberritua. Altzariz hornitua. 40.000.000 pzta.
ZIZURKIL: Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.
ZIZURKIL: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trasteleku. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pzta.

Errota 3 - Villabona

Olatzinmo@euskalnet.net

943 243 118 - 635 706 728

JOSE LUIS CASTRO ▶ ERBESTERATUA

«Gerrak aitaren adorean eragin handia izan zuen bizitza osoan»

Donibane Lohitzunera alde egin behar izan zuten lau urtez aita gobernadore izan zelako Errepublika garaian

JOXEMI SAIZAR

Jose Luis Castro Izagirre (Tolosa, 1923) Espainiako Gerra Zibilean Donibane Lohitzunera alde egin behar izan zuen familia errepublikar bateko kidea da —aita, Luis Castro Casal, abokatua bera bezala, Bizkaiako gobernadore zibila eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gestorako kidea izan zen Errepublika garaian—. 1940ean itzuli zirenean etxea berreskuratu ahal izan zuten isuna ordaindu ondoren, baina ez bando nazionalak enbargatu zizkien beste jabetzak. Gerra bere familiarentzat «kolpe latza» izan zela uste du.

Gerra Zibilaren hasiera nola bizitu zenuen?

13 urte nituen eta hemen egun gutxi iraun zuen. Zalaparta eta mugimendu handiko egunak izan ziren. Nire gurasoak, bi arrebak eta ni abuztuaren 1ean atera ginen Tolosatik eta Bilbora joan ginen. Nire anaia Juan Antonio, ni baino hamabi urte zaharragoa, ikasle zen Marinako akademian San Fernandon (Cadiz, Espainia) eta gerrak hemen harrapatu zuen udako oporretan zegoelako. Guardamarina zen ordurako



TOLOSAN

«Hemen gutxi iraun zuen Gerra Zibilak; zalaparta eta mugimendu handiko egunak izan ziren»

ANAI

«Gerra amaitu zenean Armada frantsesan sartu, Munduko Gerra egin eta Ohorezko Legioa eman zioten»

eta berehala errepublikar bandoan sartu zuten. Lehen armak Berastegin hartu zituen, Urto-ko frontean, erreketean aurrean defendituz. Iraila arte egon ginen Bilbon eta gero Donibane Lohitzunera joan ginen Frantziako gerra itsasuntzi batean, Bermeotik abiatuta.

Zergatik egin behar izan zenuen alde?

Nire aitak ez zuen ezertan parte hartu orduan. Ezer txarrik ez zuela egin esaten zuela gogoan dut, baina beste bandoko lagun batek, karlista, Santos Irastusta medikuak, alde egiteko esan zion, bestela lepoa moztuko ziotela errepublikarra izateagatik eta Errepublikan izan ziotuen karguengatik. Aitona karlista zen, baina nire aitak Zuzenbidea eta Filosofia eta Letrak ikasi zuen eta estatu motak azaldu zizkiontean gehien komentatu zuena Errepublika izan zen eta errepublikarra egin zen. Gerraren hasiera sarraskia izatearen itxura hartzen ari zen eta aita lur jota zegoen. Ama izan zen erreflexuak eduki, familia Tolosatik ateratzera behartu eta diaspora antolatuta zuena.

Garai hartan errepublikarrek indarra bazuten Tolosan.

Bai, Centro Republicanoa zegoen Justizia plazan, gerran desagertu zena. Errepublika garaian hiru tolosar gobernadore izan ziren aldi berean: aita Bizkaian, Ramon Maria Aldasoro Gipuzkoan —gerran Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Hornikuntza kontseilaria izan zen— eta Ramon Bandres Nafarroan. Inguru errepublikarrean zegoen jende prestaturari heldu zioten. Aita Gipuzkoako Foru Aldundiko lehendakaritza gestorako kidea ere izan zen. Tolosako Udalean zinegotzi izana zen Primo de Riveraren diktadura baino lehen, baina denbora gutxiz. Udal funtzioa ez zitzaion gustatzen. 1931n Errepublika Tolosako udaletxean proklamatu zenean parte hartu zuen. Baina gero zatiketa izan zen errepublikarren artean, Izquierda Republicana sortu zen, eta baja eman zuen. Alcalá Zamoraren aldekoa zen. Beste batzuk Azafia-

ren aldekoak ziren, ezkertiarra goako, eta Lerrouxenak eskuinekoak ziren.

Nolako izan zen Donibane Lohitzuneko egonaldia?

Ia lau urte pasatu genituen han, frantses batekin ezkontuta zegoen emakume baten nafar baten etxea aurkitu genuen berehala eta arazorik ez genuen izan. Eskolan jarraitu genuen eta frantsesa ikasi genuen. Tolosako jende asko zegoen, abertzaleak, errepublikarrak... Askok itzuli egin ziren. Nahiko erraza zen itzultzea, baina batzuk Ondarretako kartzelara eramaten zituzten.

Eta etxerako itzulera?

Nire aitak itzultzeko zuen kezka oso ondo gogoratzen dut. Armadako koronel baten etxera joan ginen. Bere iloba, Petra Mujika, nire arrebaren laguna zen. Aita urtebete beranduago itzuli zen, 1941ean. Nahiz eta koronel horrekin hitz egin, harrrapatu eta kartzelan sartu zuten, egun gutxi batzuek. Etxea eta genuen guztia enbargatuta zegoen. Soinean generamaneekin atera ginen ia. Aitak 75.000 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen etxea berreskuratzeko. Amaren familiarena zen. Gurekin atera ziren osaba-izebak, bizilagunak, 1939an itzuli ziren.

Nolakoak izan ziren lehen urte haiek?

Maila sozialean nahiko ondo. Batzuekin arazoak izan ziren, baina gutxi. Familiaburuaren larritasuna nabarmena zen: ia bost urtez bere bizitza profesionalean zirkulaziotik kanpora egon zen eta zorrak egin zituen. Gerrak ia 60 urterekin harrrapatu zuen. Aurrera atera ezin zuen familia ikustearan estuasuna eta depresioa jasan zuen. Despatxua berriro antolatuta eta martxan jartzeko keamena izan zuen. Gerrak bere adorean eragin handia izan zuen bizitza osoan, 1965ean hil zen arte.

Zure ikasketetan nola eragin zuen?

Itzultzerakoan batxilergoa berarratu nuen Eskolapiotan eta ondoren Zuzenbide karrera egin nuen lau urtetan, libre examinatuz Valladoliden eta



JOXEMI SAIZAR

Salamanca, familiarentzat karga ez izatearren, eta aitarekin hasi nintzen lanean.

Zer egin zuen zure anaia marinela?

Ejertzitoaren hiru gorpuzetatik Marina izan zen errebeldeena, altxamendu handiena izan zena. Errepublikari leial jarraitu zutenak gutxiak izan ziren. Agintariak aristokraziako jendea zirela kontuan izan behar da, Errepublikaren aurka-koak. Juan Antonio gerran sartu zen lehendabizi Bilbon, destruktore bateko bigarren komandante gisa. Santanderrera pasatu eta handik Gijonera joan zen. Han bonbardaketa batek itsasuntzia urperatu zion. Gero Jose Luis Diez untzira pasatu zen eta ospe piska bat eman zion historia bat izan zuen. Bere destruktorea Inglaterran zegoen eta ingelesekin bere gora-beherak zituen. Francori gobernu errepublikarri baino gehiago lagundu zioten. Inglaterrak Jose Luis Diez untzia bere uretatik ateratzera behartu zuen. Anaia agintea Le Havren (Francia) hartu zuen eta bere arazo Gibraltarreko itsasartea pasatu behar izatea zen. Maniobra batean Canarias untzia aboratu zuen eta Gibraltarren sartu ahal izateko maniobra hori Marina eskolan betirako gelditu zen. Inglesek Gibraltarren atxilotu eta gerraren amaieran Donibane Lohitzunera joan eta Armada frantsesan sartu zen. Munduko II. Gerran parte hartu zuen Espainiako Gerra Zibileko beste borrokalari asko bezala,

Parisen desfilatua zuen, leku askotan egon zen destinatuia —Madagascar, Aljeria, Tunisia...—, almiranteorde izatera iritsi zen eta Ohorezko Legioa eman zioten. Erbesteko Eusko Jaurlaritzako idazkariarekin ezkondu, Bidaxuneko, bi seme izan eta karrera militarra Frantzia amaitu zuen. Gero bere zaletasun handi batekin jarraitu zuen, meteorologia. Itzultzeko arazoak izan zituen eta 1967 arte ez zuen lotu. Parisetik gertu bizitu zen eta 1994an hil zen.

Zer izan zen Gerra Zibila zuentzat?

Kolpe latza, ekonomikoa, familiarra eta alor guztietan. Aita-arentzat trauma lazarria izan zen. Etxera itzuli eta suntsituta zegoen despatxoa berriro martxan jarri behar zen. Urte asko pasatu dira eta gauzak ahazten joaten dira. Batzuek gauzak itzuli zizkiguten eta beste batzuek ez. Aitak inori ez zion ezer esijitu. 'Bakoitzak bere kontzientzia dauka', esaten zuen. Gure ama 1991n hil zen, 104 urte zituela. Gerrako gauza asko zekizkien, baina inoiz ez zuen ezer esijitu. Itzuli zigutena onartu genuen, baina inori ez genion ezer eskatu. Etxearen gaia konponduta, beste guztiak ez zuen hainbeste inporta.

OHARRA ▶

Elkarrizketa hau eta Gerra Zibilari buruzko sail honetako artikulak gure webgunean ikus ditzakezu.

AGENDA ▶

38. ABESBATZA LEHIAKETA

Tolosa. 11:00etan, Leidor antzokian, lehiaketako amaiera saioa eta sari banaketa. Ekintza *Agur Jaunak* abestuz bukatuko dute. 14:30ean, udal ferialekuan abesbatza bazkaria egingo dute. Eta 19:00etatik aurrera, San Frantzisko elizan, University of Luisville Cardinal singers (Ameriketako Estatu Batuak) abesbatzaren kontzertua izango da entzungai.

DEIALDIAK

Ibarra. Babarrun jatearen festa. 12:30ean, Jexu Mari Mujikari eta Unai Otañori omenaldia dela eta, aizkolarien erakustaldia, Ibarra aizkolariak bi aizkolaria nafarren aurka, 12 kana erdiko lan desberdinetan; ondoren, Ibarra gazteak kana erdiko bat eta ontzako bat moztuko du. 14:30ean, bazkaria egingo dute eta txerri baten zozketa ere izango da.

ERAKUSKETA

Ibarra. Iñaki Vergararen *Artzainaren Bizitza* txuri beltzeko 35 argazkien erakusketa ikusgai, Kultur Etxean.
Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean, hilaren amaierara arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Ibarra. Iturriz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

Bihar
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Ollareaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegana* (errepikapena).

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Dantzari txikien egun handia

ALEGIA ▶ Azaro Kulturalari jarraipena dantzari txikien pausok eman diote, herrian zehar egindako kalejirarekin eta dantzaldi emanaldiarekin



Dantzari askaria banatu zieten; arratsaldeko arrakastatuena, kokoloa ogi artean. N. URBIZU



Kalejiran hasi zirenean bi taldetan banatu ziren. N. URBIZU



Dantza egin aurretik beroketak egitea komeni zen. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Alegiko Dantzari Txikien Eguna atzokoan ospatu zuten Alegiko udaletxearen inguruan. Azaro Kulturalaren baitako bigarren ekitaldia izan zen dantzetakoa.

Altzo, Alegia, Tolosa, Ikaztegieta, Villabona, Anoeta, Ibarra eta Irurakoak izan ziren dantzariak; herri bakoitzeko bat. Hauek Tolosaldea autobus enpresari esker joan ziren Alegiara. Lehenik Tolosako Maxi Eroskik prestatutako askaria hartu zuten denek, ondoren herrian zehar kalejiran ibiltzeko garaian indarrekin arituzko.

18:00ak aldera bitan banatu ziren dantzari taldeak eta Larraitzera joan ziren batzuk, besteak Kaleberan zehar ibili ziren bitartean. Ondoren, dantza saioa egin zuten herriko plazan, talde bakoitzak dantza bat eginez.

Euria ez eginda hara hurbildu ziren guztiek, jertse lodi bana jantzita, dantzez erraz gozatu ahal izan zuten.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa